

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

807

IRAGARKIA, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde-ordezka-riarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «BESS Lajara – AESC» izeneko proiektua; proiektu horretan proposatzen da Gueñesko udal-mugarlean (Bizkaia) baterien bidez energia biltegitratzeko instalazioak eta hari lotutako azpiegiturak eraikitzea.

Bat etorri 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan –48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak (2020-04-24ko EHAA)– eta 24/2013 Legearen 53 artikuluan –24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa (2013-12-27ko BOE)– xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen da BESS Lajara – AESC baterien proiektua. Izan ere, instalazio horretarako eskatu dituzte aurretiko administrazio-baimena, eraikitzeko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

Espedientea.: 48-GE-Y-2025-00014.

– Eskatzailea: AESC Tender I, S.L.

– Kokapena: Gueñeseko udal-mugarlea.

– Aurrekontua (BEZik gabe): 2.760.455,38 euro.

– Helburua: baterien bidez energia biltegitratzeko sistema bat eta hari lotutako azpiegiturak ezar-zea, bertan dagoen 30 kV-ko sarera konektatuta.

– Instalazioaren ezaugarriak: JAVF industria-ingeniariak 2025eko uztailean sinatutako eta 2026ko urtarrilean berrikusitako proiektuan adierazitakoak (proiektua espedientean dago).

– Eskaeraren xedea: aldez aurreko administrazio-baimena, eraikitzeko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

Proiektu honi ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua egin zaio.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa azter dezaten Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Bilboko Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua) eta Interneteko URL helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu ahal izango dira, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeita hamar egun baliodu-neko epean, egoki irizitako alegazioak, bai euskarri fisikoan, idatziz, haren erregistro orokorrean, bai EAeko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoko orokorraren bidez (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>), bai Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduan.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin

2026ko otsailaren 23a, astelehena

bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, aipatutakoek, jendaurreko informazioaren izapide honetan egindako alegazioak, nahitaez, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dituzte.

Bilbao, 2026ko otsailaren 10a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.